



ROMAN IGARTUA IRIZAR BIZIKLETAZALE AMORRATUA

Egun honeitan oñatiar gazte batek maila internazionalako txirrindulari-ekipo batian fitxaittia pozik hartu dau herriko afiziñuak. Baiña historixa luzia dako ziklismuak gure herrixan: 1922xan Olabartako Nikolas Altzelai, *Aldai*, eta Zubillagako Benito Aiastui, *Farretxe*-ren desafixo fama ezkerero, Oñatin ezta faltau izan korredore destakaurik, ez eta afiziño zin-

tzorik be. Antolatu izan diran konpetiziñuak be asko izan dira.

Gerra aurrekuak dira gure alkarrizketatuak bizikleta gañian egindako azañarik haundi-xenak, baiña bizikleta piezakin kotxe bat egittia be etzan azaña makala izan. Gauza honeitxek izan dittugu berbabide Roman Igartuarekin.

- Oñatin 1922xan sortu zan lehenengo ziklismo ekipua *Aloña Mendi* izan zan, baiña zure denporan beste izen bat eukan ezta?


Bai, nik 1930etik aurrera korridu nittuan prueba gehixenak eta orduan eguen taldia *C.D. Oñate* zan; boxeo taldia be bazan. Akordaitten naiz Lezesarrin, gero Sabinak dendia jarri eben lokalian entrenaitten zirala boxeadoriak.

- Zelako konpetiziñotan parte hartu zeben?

Inguruko herrixetan be afiziño haundixa eguen; jaixetan eta, prueba dexente organizaitten ziran. Antzuolan 3 urtetan irabazi neben nik: 32, 33 eta 34an. Eibar eta Zaldibin be bigarren allegau nintzan. Mailla nazionalako probetan be ibilli nintzan: 35ian, Bilboko Santo Domingorako igoeran hirugarren geratu nintzan Oñatiko Leturiagarekin batera, Trueba anaien atzetik. Urte berian Donostia-Zumarraga-Azpeitia-Donostia kontrarrelojian be hirugarrena izan nintzan.

- Ziklo-krosian egitten zeben?

Nik neuk oso gutxi, baiña



S

printerra izan banitz, askoz be karrera gehixago irabaziko nittuan.

33an Donostian egin zan Espaiñako ziklo-kros kanpeonatuan Oñatiko zazpi korredorek hartu geben parte eta ekipotako kopia herrira ekarri geben. Izan be, Leturiaga hirugarren sartu zan, Idigoras laugarren, ni zazpigarren eta Ibarrondo hamabigarren.


- Ekipuarekin batera entrenaitten ziñan?

Bai zera! Orduan geure kontura ibiltten giñan, norberak entrenau bihar izaten eben bere kasa. Premixua besterik ezkeben eruaten guk, eta hori irabazten gebenian, jakiña.

Gaur egunguarekin ezta bape antzik; oraingo korredoriak señorito batzuk dira gure aldan. Orain karreran erruedia zulaketan baxate, bizikletia aldatu eta listo. Gure denporan, barriz, norberak aldan eruaten eben tubularra; aldatu eta erruedia puzketan bost minutu inguru egitten geben. Hori pasau ezkerero, karrera galdu egitten geben.

- Entrenadorerik bazeukan?

Ez, orduan bakoitzak bere



**ZURITZ
INTERNACIONAL**

M^o del Mar
Urrutia Negueruela

Euskadi Etorbidea, 15 Tfnoa. eta Faxe: 78 30 09 OÑATI

ARANBYRY


Pintura orokorrean
Garbidenda
Paper margotuak

Koadroetako marko denda

Kale Barria, 47. Tfnoa: 78 19 99 OÑATI



Roman bere jaixotetxe aurrekaldian, Olabartako taberna zaharra, Luis bere anaia begira daguela..



Romanen Txirrindulari-federaziñoko karneta. Reyes Korkostegiren bittartez lortu dogu.

kasa entrenau bihar izaten eben. Nik, ahal zanian egitten neben. Normalian Deskargako bueltia, edo bestela Kanpazarretik, Mondrauen nobixiari bisittia egin alde.

Jateko be arrautza freskuak eta esniarekin eginddako pontxe antzeko zerbait hartzen geben.

- Bizikletak be asko aldatu dira...

Bai, ordukuak 14 kilo edo pixaiten ebein burdin piezak ziran; eta erruedak egurrezko llantak eukain. Nik 16 urterekin erosi neben nere lehenengo bizikletia; ondo kostata, 28 duro pagau neben eta.

- Ze lan egitten zebein orduan?

Kamiñero ibilli nintzan Zumarraga aldian. Egunian 8 pezeta irabazten geben, eta artian bazkaRixa be geure kontura.

Orduan lanera be bizikletan faten nintzan eta hantxe erre xaten Farretxenian erosi neben lehenengo bizikletiori; Udanan lanian gebiltzala, eurixa hasi eta plastikuz zaharretan batuta itturixan sartu geben bizikletia, baiña koziñeruak rantxua egitteko katxarrua be sartu eben,

eta han atara bihar izan geben bizikletia, suzko erruedak moduan, txinpartaka.

- Zelako erropak erabiltten zebein karreratan?

Nere lehenengo karrera burutik hanketaraño zuriz jantzita egin neben. Kamisetia, fraketa josittako kantzontzillo luziak eta alpargatak. Aurrerago zapatilla espezial batzuk egin nontan Jesus Ibarrondok, korredore ona izateaz gain zapaterua be bazan eta.

Federaziñoko karneta ataratera, Donostiaraiño faten giñan bizikletan.

- Noiz arte ibilli ziñan konpetiziñuan?

Gerra denporan gauzia geratuta egon zan, baiña gero be jarraitu neben korriten.

- Noiz jarri zebein alkilerra?


Gerraostian iñun ez eguen lanik eta, ni korredoria nintzanez, bizikleta alkilerra ipiñi neben 1940xan Kale zaharrian. Bajuak eta lehenengo pisua 300 pezetako errentan hartu nittuan Lizaur Arkitetuaren etxian, orain ITURRI tabernia daguen lekuan.

- Bizikleta asko zeukan alkilaitteko?

Apurka-apurka fan nintzan bizikletak erosten eta 26 bat euki nittuan. Eibarretik ekarten nittuan, Orbea etxetik batez be; eta arregluak egitteko pieza billa sarritan faten nintzan Eibarrera.

- Zenbat izaten zan alkilerra?

Egunian sei pezeta eta ordua, barriz, pezeta bat. Askotan aberixia egin ezkeru, bizikletia bertan itxi eta hanka egitten ebein mutikuak.



PEUGEOT-TALBOL
OÑATI K. Elk. GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50 OÑATI

GOIZTIRI



Belardenda
Dietetika zentrua
Konsulta naturista:
Oscar Castejón
Kale Zaharra, 18
Tfnoa: 71 63 00



Romanek berak egindako kotxia, Jose Luis semia barruan zala, kaleratu eben egunian atara eben erretrato hau Patxi fotografiak. Inguruan begira, Jose Antonio Aranburu, Geretaneke Manolo, Sierbetako monjia eta beste batzuk

- **Kartero lanetan be jardun zebe...**

Bai, kartero ebillen anaia soldautzara fan zanian, oposiziñuak egin eta neu be hasi nintzan kartero lanetan.

- **Noiz izan zan hori, alkilerra baiño lehenago?**

Ez, batera; goizero, domeketan be bai, karta-partitten ibiltten nintzan, andria alkilerrian itxitta.

- **Bizikleta piezakin kotxetxua egin ei zebe...**

Bai, hori izan zan nere jobixa denpora askuan. Alkilerreko lanak akabota, han geraketan nintzan ni taillerrian kotxiori egitten. Pieza danak bizikletanak ziran eta gehixen kostau xatena direkziñua asmaittia izan zan. Farolak be bizikletanak ziran eta pilakin funtzionaitten ebein.

- **Baiña karrozerixia egurrezkua eukan?**

Bai, horretan nere anae arotzak lagundu nontan.

- **Eta zela ibiltten zan?**

Pedalakin. Bi lagunendako

lekua eukan eta birekin ondo ibiltten zan, baiña batentzat bakarrik astunegixa zan.

- **Noraiño allegau ziñain kotxiorekin?**

Mondraguera eta Zumarragaraiño be bai.

- **Udanan behera etorteko freno seguruak eukan?**

Bai horixe, bizikleta-frenuak eukan eta oso seguruua zan alde horretatik.

- **Eta ze pasau zan kotxiarekin?**

1950 inguruan bukatu neben nik kotxia eta handik puntura Bilboko bi biajanteri gustau eta erostia gura izan ebein. Han etorten ziran ixa astero erosi guran eta azkenian, egin eta urte ta erdira edo, eurairi saldu nosten 2.500 pezetagatik, etxian be traba haundi-xa egitten eben eta.

Han fan ziran biajantiok kotxetxua euren kotxe gañian hartuta. Gero entzun nebenez, Kanpazar gañian jaitsi eta Bilboraiño fan ei ziran pedalaire eragitten.

- **Biajante lanetan be ibillitakua zara?**

Bai, alkilerra itxi eta gero, lau probintzietan ibilli nintzan, eta horretan irabazi neben diru gehixen.

- **Noraiño faten ziñan?**

Lau probintzietan ibiltten nintzan lehenengo *mobilierian*, gero *lanbreta* batekin eta aurrerago laubost kotxe be izan nittuan. Bizkai-xan Santurtziraiño, Naparruan Estellaraiño eta Gipuzkuan Irun alderaiño faten nintzan.

Miami izena eukan 16 urterekin erosi neben nere lehengo bizikletiak eta 28 duro kostau xaten.

LIZARRALDE

KIROLAK

Olakua, 16 OÑATI
Tfnoa: 78 29 86

KIKU

GOZOKI DENDA

Kale Barria, 7. OÑATI

- Poltsak
- Goxoki eta fruitu leiharrak
- Edozein ospakizunetarako enkarguak hartzen dira (ezkontza, bataiao...)